

EUSKAL LIBURU SORTA

ERIARENTZAKO YAKINGAI BEARENENKOKAK



IPUIN LABURAK

GARITONANDIA' TAR BITOR' EK EGINAK

EUSKAL LIBURU SORTA
HERRIARENTZAKO JAKINGAI BEHARRENEKOAK

IPUIN LABURRAK

GARITAONANDIATAR BITORREK EGINAK

IPUIN LABURRAK UMETXOENTZAT

IPUIN LABURRAK UMETXOENTZAT

(EUSKALTZAINDIAREN
IDAZTI BATZALDIRAKO)

IKURRITZA:

"MENDU EUSKARAZ UMEAK"

1922
EDITORIAL VASCA
BILBAO

BEHAR DEN BAI AZ



I

PERREA

Peru eta Patxi, aita-sembleak, Donostia aldera zihoazen. Peruk edauzki (perra) bat ikusi zuen bidean, eta esan zion semeari:

— Patxi; hartu ezak edauzki (perra) hori eta gorde sakelan.

— A ze gauza! Txartar hori gordetzeagatik makurtu? Ez—. Eta jaramonik egin gabe jarraitu zion bideari Patxik.

Aitak, ezer erantzun gabe eta isil-isilik makurturik hartu eta gorde zuen edauzkia.

Lehenengo heldu ziren herrian izan zuen edauzkia saltzeko zoria, eta eman zioten diru-ordainez, gereziak erosi zituen.

Tapa-tapa bazihoazen aurrera. Eguerdi aldea zen, eta eguzkiak gogortxo jotzen zuen.

— Ez ote dugu aurkituko iturritxoren bat! — esanaz, estu zihoan Patxi izerdi-tantaka, ahoa lehorturik.

Honelako batean Peruri erori zitzaion sakelatik (bere naiz) gerezi ale bat. Patxik hartu zuen berehala, baita ahora sartu ere gogoz. Geroxeago bota zuen aitak beste bat; semeak hartu eta jan. Horrela, batak bota eta bestiak hartu, jarraitu zioten gereziak ahitu arte.

Azkena jan ondoren, aitak esan zion semeari:

— Behin makurtu bahintzen edauzkia jasotzeko, ez hukeen ehun aldiz makurtu beharrik gereziak hartzeko.

Neke txikia eraman nahi ez duenak
Ondoren ditu neke handi eta lanak.

II

ANAIA ONAK

Joan ziren egun baten Tolosako txapel olara baserritar anaia bi, eta galdetu zioten olajaunari:

— Jauna: Ba al duzu lanik guretzat?

— Zenbat eta nolakoa den.

— Gu gertu gaude nahi duzun eratara hil guztian gogor ekiteko, janaz gainera hogei ogerleko ematen badizkiguzu.

— Hogei? Ez al duk askotxo izango?

— Ez jauna. Guztia beharrean aurkitzen gera; eta zuk nahi ez baduzu beste batengana jo beharko dugu.

— Hain behar-beharrekoak al dituzue diru horiek?

— Hara jauna. Hamalau urteko anaia bat dugu etxean, eta nahi genuke langintza bat erakustea. Aitak hitz egin zion burdinagile on bati, eta gertu dago erakusteko, baina hogei ogerleko eskatzen ditu aurrez. Ez genuen dirurik etxean, eta hil honetan baserri-aldean lan gutxitxoago izaten denez gero, zugana jo dugu dirutza hori irabazteko ustez.

— Ba, anaia-maitasun egiazkoa erakutsi duzuelako, izango duzue hil-azkenean diru hori, gogoz lan egiten baduzue.

Sartu ziren bada olara, eta ekin zioten lanari; gogor eta kementsu ekin ere! Lehenengoak lantegira joaten, eta azkenekoak ateratzen.

Hilabete igaro ondoren olajaunak bere langelara sararaziaz honela esan zien:

— Horra hor legez eta bidez irabazi dituzuen hogeitogerlekoak. Tori beste hogeituzen zintzotasun eta anaia-maitasun ordainez.

Lagundu maitasunez
Anai txikiari
Ta izango duzu Jauna
Betiko zaindari.

III

ELKARTASUN HANDIKO AHIZPAK

Sendi gabeko andere aberats batek hartu zuen alabatzat umezurtz txiro bat. Sotil eta mena, alaitsu eta maitekorra, zintzotasun eta elizkoitasun handikoa zen ume hori.

Esan zion egun baten bere andere urgazleak:

— Itziartxo: sotil eta ona zarelako soineko berri eta apain bat izango duzu eguberrietarako. Tori dirua, eta zoaz *Legezar-zeiko* bitxitegira: hantxe emango dizute zure gogozko oztin (1) mihisea.

Eman zion bada ogerleko pilo bat soineko-miesa erosteko. Baina Itziartxok, diruari begira egon ondoren, esan zion:

— Nire amatxo maitea: nik lehendik ere baditut soineko apain eta ederrak; nire ahizpa berriz lander eta kupigarri janzten da: beraz, nik orain beste soineko berri bat egitea izan liteke beretzat tamalgarri. Utziko didazu bada erdia berari ematen? Askok lagundu zidan berak ere, dakizun bezala, nire gaixo-aldian, eta behartua nago bere niganako maitasunari erantzutera.

— Nire alabatxo maitea! — erantzun zion
andereak—. Datorrela hona zure ahizpa. Biok
soineko bana egitea nahi dut. Horrela, onginahi eta
maitasunez berdin agertzen zareten ahizpa biok,
soinekoz ere berdin jantziak aurkituko zarete.

Elkarganako maitasunak
Zoriontzen ditu amaiak.

(1) Oztin=Azul celeste



IV

ARTZAIN ZORITSUA

Artzain-mutil gazte bat, udaberriko goiz distiratsu baten, mendi bizkar orlegi eta loretsuan bere arditxoak zainduaz, alaiki eta gozaro aurkitzen zen. Une oroko abesti eta soinu jotzeaz erakusten zuen bere barrengo atsegin ugaria.

Halakoren batean urreratu zitzaion han inguruan ehizatzen zebilen laterri jaurlaria (1), eta onginahiz honela hitz egin zion:

— Alaitsu aurkitzen zaitut, gazte.

Artzainak, nori hitz egiten zion jakin gabe, erantzun zion:

— Bai, eta nola ez? Gure jaurlaria bera ere ez da ni baino aberatsagoa.

— Benetan? — zion harriturik jaurlariak — Jakin behar dut non dituzun aberaski horiek.

— Bai, bai. Hara; — jarraitu zion artzainak — ortzi urdin horretan agertzen zaigun eguzki distiratsuak jaurlari jaunarentzat bezain argi bidaltzen du niretzat ere. Mendi eta zelai, ibar eta soroak, bakoiztasun gabe ematen dizkigute urrin eta usain goxozko hostaila eta loreak. Nire esku eta besoak ez nituzke emango berrehun mila laurlekogatik, eta nire begiak erosteko ez dira aski jaurlariaren aberaski guztiak. Nahi dudan adina jaten dut, edan ere bai; zer jantzi badut, eta urtero lansaritzat ematen didate behar dudan adina diru. Gainera, Jaungoikoaren adiskide naiz. Ez al naiz bada jaurlaria bezain aberatsa?

Jaurlariak, irribarrez artzainari begiratuaz, eta nor zen jakinarazi ondoren, honela erantzun zion:

— Bai, artzain zoritsu: hizpidean hago. Hire jaurlariak ere horrela uste dik. Iraun diezaala urte askotan zorionezko alaitasun horrek.

Barrengo alaitasunez
Bizi den otseina
Jaurleri jauna baino
Aberatsagoa da.

(1) Laterri-jaurleria=Enperadorea.

SEME ONA

Salerostetxe (1) handi bateko sarigarri (2) aurkitzen zen Andoni. Bere aitak ere etxe artatik ateratzen zuen bizibidea, aurkezle (3) bidaztuaz (4).

Halako egunean aitak nagusiaren aginduz itsasostera joan beharra izan zuen. Itsasontziratu eta laster jakin zen ontzi hura itsaslapur batzuek harrapatu zutela; eta inguru guzietan galdekuntzak egin arren, ez zetorren inondik ere Andoniren aitatzaizko izparrik.

Andonik bete zuen berehala sarigarritza, eta nagusiak, bere zintzotasuna ikusiaz, eman zion bere aitak zuen irabazpidea. Arteziz eta zindoro jarraituaz laster aurreztu zuen diru puska bat.

Halakoren batean, jakin zuen Turkian aurkitzen zela bere aita mahomatar baten jopu-morro, eta erabaki zuen nolabait joputasun artatik askatzea. Horretarako diru askotxo behar zuen, eta lehendik aurreztutakoak gehitzeko saldu zituen janzki eta beste domudun (5) gauzaki guztiak behar-beharrekoak ez baizik. Bidai saria ere aurreztearen sartu zen otseintzat eguterantz (6) zihoan itsasontzi batean; eta heldu zen Turkiara.

Aitaren berri jakin ondoren joan zen menpeko zeukan mahomatar aberatsagana, eta eskatu zion gogoz eta bihotzez bere aitaren askatasuna diru ordainez.

Baina mahomatarrak Andonik zeukan baino askozaz diru gehiago eskatu zuen.

Andoni bihozkatu zen; eta aitaren askatasuna diruz erosi ezin zuenez geroz esan zion mahomatarrari:

— Jauna: Askatu ezazu arren, nire aita, eta bere ordeztu ni geldituko naiz zure jopu. Berak bezain ondo gomenduko (7) zaitut.

Mahomatarrak agindu zuen deitzeko berehala arrotz jopuari. Elkar ikusteaz batean besarkatu ziren aita-semeak, eta tankera horretan, begiak malkoz beterik, hitz egiteko adorerik gabe, aurkitzen ziren biak.

Jakin zuenean aitak Andoni eskaini zela bere ordeztu deitzeko, bihotz-ikaraz eta saminki malkoak isuriaz honela zion:

— Ez seme, ez! Gehiegi duk hori: Nire bizitza laburra izango duk!

— O nire aitatxo maitea! — erantzun zion Andonik— Ez dakigu zeinen bizitza izango den laburragoa: eta gertu nago, ez bakarrik zure joputasuna niregain eroateko, baita nire bizia emateko ere. Tori zu

erosteko ustez ekarri ditudan diruak. Horiekin ordaindu dezakezu harantzako bidaldia, eta... Jaungoikoak onetsi zaitzala. Ni hemen geldituko naiz.

Hitz hauek entzuteaz bihotz-ukitu zen mahomatarra eta esan zion Andoniri:

— Gazte: Seme bikain eta zintzoa haiz. Beraz, ordainketa gabe askaturik gelditzen duk hire aita. Gainera, nik ematen diat salerostetxe bat jartzeko behar duan adina diru. Jaungoikoaren aginduari jarraituaz aitaganako maitasun osoa agertu dualako.

Hazten badituk seme-alabak gizabidez igaroko duk zahartzaroa atseginez.

- (1) Salerostetxe = Casa de comercio.
- (2) Sarigarri = Meritorio
(euskaraz.net-en oharra: bekadun).
- (3) Aurkezle = Representante.
- (4) Bidaztu = Viajar.
- (5) Domu = valor.
- (6) Egutera = Oriente
- (7) Gomendu = servir

VI

MALTZURRA

Pello zeritzon mutil gazte itsu bat hiriko Elizan meza entzun ondoren bazihoan bere auzo-aldera makila bat lagun zuela. Bidean Praixkurekin bat egin zuen, eta, beti bezala, tenk egin (1) zuten. Praixku guztizko maltzurra zen, eta irri eta barre egin nahian esan zion itsuari:

— Pello: lasterketa bat egin behar diagu. Nahi duan beste jokatuiko diat zeinek bizkorrago egin.

— Non eta noiz den — erantzun zion itsuak.

— Hona hemen hamaseiko bat non-nahi eta noiz nahi jokatzeko.

— Badoa. Hona hemen nirea ere — erantzun zion itsuak: Eta inguruan zeuden hiru gizon zinaldari jarri ondoren jarraitu zuen esanaz: — Jaunak: leku honetatik hiriko eliza atariraino izango da lasterketa; eta abiatuko gera gaur-gaueko hamabi-hamabitan. Beraz, eliza atarira lehenengo iristen denak jasoko ditu hamaseiko biak.

Heldu ziren gauerdiko hamabiak, eta, tema-arauz, abiatu ziren biak batean.

Etzan agiri ilargirik eta gau ilun-iluna gertatu zen. Itsuari argi nahi ilun berdin zitzaion, eta ohitutako bideari tapa-tapa jarraituaz iritsi zen eliza atarira eguna zabaldu baino lehen. Praixku berriz abiatu eta berehalaxe bidez galdurik, jo horra eta hona, bai zarrapastaka eta bai zilipurdika, batean zuhaitz enborra jo, bestean arantza artera sartu, non aurkitzen zen ere ez zekiala zabaldu zitzaion eguna: eta, jakina, itsua baino askozaz geroago iritsi zen eliza atarira.

Jaso zituan bada itsuak legez eta bidez irabazitako hamaseiko biak; eta Praixku, sakela murrizturik, auzokide guztiak irri eta barrez atzetik zituela, apal-apal eta isil-isilik etxeratu zen.

Horra hor bere maltzurkeriak eman zion saria.

Landerrari eta ermainduntzaz (4)

Ez inoiz isekatu

Goiko Jaunaren zigorra

Hartu nahi ez baduzu.

(1) Tenk = Alto!

(2) Ermain = Defecto físico



VII

INTXAURRA

Intxaurdi eder bateko itzalian jolasten ari ziren mutil-koxkor bik aurkitu zuten intxaur bat.

— Nirea duk —zion Iñakik— Nik ikusi diat lehenbizi.

— Ez, —erantzun zion Txominek— niretzat izango duk neronek harrapatu dudalako.

Berehala sortu zen bien artean inkimako (1) izugarri bat. Lehenbizi hitz goraz, gero haserrez eta azkenez borroka.

Honetan ari zirela heldu zen beste mutil indartsuago bat, eta borrokari bien artean honela hitz egin zuen.

— Tira adiskideak, geldi! Nik erabakiko dizuet auzi hori— Eta intxaurra erdibituaz jarraitu zuen: —Oskol erdi hau lehenbizi intxaurra ikusi duenarentzat; eta beste erdia lehenbizi harrapatu duenarentzat. Mamia niri egokitzen (*) zait epai saritzat.

Hau izaten da auzi guzien amaia:
Malmuzkeri asko eta onura gutxi

(1) inkimako = querella

VIII

ARROSAK

Basetxean bizi zen lugin etxagun batek, landatu zuen bere baratzaoko lilitagian arrosa-ondoeko bat.

Ikusi zuen hurrengo egunean bere alaba Margarik eta esan zion aitari:

— Zer jarri duzu hor? Hain lilitagi polit eta ederrean sartu habetxo (1) zakar hori! Oso gaizki ematen du arantza horrek lorontzi egoki horretan.

— Itxoin, ume, itxoin —erantzun aitak.— Arantza lehorra iruditzen zaizun landare horrek emango ditu garaiz baratze guztia bitxituko duten lore lirain eta guri-guriak.

Margarik burua higituaz erakusten zuen bere sinesgaiztasuna.

Baina ez zuan izan luzaro itxoin beharrik sinesteko. Laster agertu zitzaizkion habetxo arantzaadunari motetxoak, eta poliki-poliki ostatuaz jantzi zen margo hori urdin ederrez. Ondoren, sortu zitzaizkion pinpirin (2) txiki eta politak, eta lilipa, akara eta beste lore-belarren hostoak zimeldu eta lehortzen ari zirenean zabaldu ziren arrosa-pinpirinak eta arantza baino besterik ez zeukan landaretxo ura bete zen lore lirain eta ederrez, baratze guztia apaindu eta bitxituaz.

Margari harriturik aurkitzen zen arrosaren zurigorritzko margo diztikorra ikusiaz eta bere usain goxoa sumatuaz. Uneoro joaten zen lore berriaren urrina gozatzera, eta honela zion:

— Hau bai dela lore polita! Ez dut inoiz ikusi politagorik, ezta baratze apaingai ederragorik ere. Nork esango zuen!

— Sinisten duzu orain? —erantzun zion aitak. — Ikusi duzu nola arantzatik etorri litekeen arrosa ederra. Bere epea igaro arte itxoin beharra izan duzu, baina orain pozik aurkitzen zara.

Horrela dira Jaungoikoak bere maitasunez bidaltzen dizkigun nekeak ere. Habetxo arantzadunak udaberri ondoren arrosa ederrak ematen dizkigun bezala, neke eta nahigabeek ere, eroapenez hartuez gero, ekarriko dizkigute atsegin eta zorion ugariak.

(1) Habetxo = Arbusto.

(2) Pinpirin = Capullo.



IX

AZABURUA

Bittor eta Patxi langileak baratze eder baten aurretik zihoazela gelditu ziren azaburu ikaragarri batzuek ikusiaz. Bittor zinezkoa zen, Patxi berriz guztizko harroputza.

— Izugarriak dituk! —zion Bittorrek —ez diat inoiz ikusi handiagorik.

— Bai zera! Hori ez duk ezer — erantzun zion Patxik — Amerika aldean badituk askozaz handiagoak ere. Nik behin ikusi diat aurreko beretter-etxe hori baina azaburu handiago.

Bittorrek, perzgilea zenez, esan zion berehala:

— Gogortxo duk hori! Baina nik ere esan behar diat entzuteko bat. Orain hamar urte inguru lagundu nioan nire nagusiari beretter-etxe ondoan aurkitzen den Eliza baina pertz handiago bat egiten.

— Baina gizona — ihardetsi zion Patxik — zertarako huen pertz izugarri hori?

— Ba, hire azaburua egosteko.

Bittorren erantzuera egokiak nazkatu zuen Patxi, eta apal-apalki bere ekandu gaizkorra ezagutuaz, honela zion Bittorri:

— Ulertzen diat hire gogokizuna. Bazekiat ondo higandik urruti ibiltzen dela gezurra, eta gaur egia bidez hitz egin ez baduk, nire irrigarriz izan duk. Ongi egin duk —. Ez zaidak ahaztuko nire zentzabidez gaur erakutsi didaan esakune hau:

Gezurtiari gezur eta erdi

X

ARBIA

Nekazari apal batek atera zuen bere baratzetik arbi ikaragarri bat. Herri hartan ez zen inoiz ikusi handiagorik.

— Endore alkate jaunari eskainiko diot — esan zuen nekazariak —. Lugin zalea da eta atseginez hartuko du.

Eraman zion bada; eta endoreak guztizko abegi ona egin zion, bere atsegina erakutsiaz; eta nekazariaren lugintza aldezko arreta goratu ondoren eman zion hamaseiko (1) bat.

Nekazariaren auzoan lugin aberats eta zeken bat bizi zen. Jakin zuen honek nekazariari endoreak nola saritu zion arbi eskaintza, eta bekaitzez beterik honela zion bere artean:

— Badut nik ere txahal gazte eder bat. Endore jaunari eramango diot eskaintzan, eta arbi zakar bategatik hamaseiko bat eman badu zenbat emango ote dizkit niri txahal bat eskainiz gero?

Jaitsi zen bada abeltegira; heldu zion txahalari, eta eramane zion endoreari.

Baina endoreak zekenaren asmoak ulertuaz ukogin zion.

Ez zen horregatik aberats zekena atzeratu, eta ari eta ari jarraitu zuen bere oparia eskaintzen.

Gogaitu zen endore jauna zekenaren jardunaz eta esan zion:

— Tira ba: hainbeste ahalegintzen zarenez gero, utzi ezazu txahal hori. Eskertzen dizut, eta hain oparo nirekin agertu zarelako, ni ere ez naiz zurekin gutxiago izango. Horrela bada, zure txahal salneurria baino askozaz gehiago ordaindutako oparia eman behar dizut.

Eta berehala eskaini zio nekazariaren arbi handia, lotsariz eta laborriz aberats zekena utzirik.

Hurkoari bekaitzez begiratzen dionak izango ditu beregain neke eta minak.

(1) hamaseiko = Onza de oro.

XI

PAGO ZABALA

Erramun eta Martin aurkeztu ziren egun baten auzitegian.

Erramunek esan zion epaileari:

—Hiru urte dira bidaldi bat egin beharrean aurkitu nintzela. Bidean jarri baino lehen eman nion Martini, adiskide zintzoa zelako ustez, urre eta ditzarrizko eraztun domutsu (baliotsu) bat, nire bidaldi bitartean gorde zezan. Eta orain, zinez bihurtu beharrian, ukatu egiten dit.

— Martinek, bere eskua bihotz-gain jarriaz, erantzun zuen:

— Zin-zinez dizuet nik ez dudala ikusi ere eraztun hori. Erramuni burutik egin zaio noski.

— Erramun — galdetu zion epaileak —: ba al duzu sinesbiderik eraztuna Martini eman zeniola baieztatzeko?

— Zorigaitzez — erantzun zion Erramunek — eraztun hori Martini eskuratu nionean ez zen

aurkitzen inguru hartan beste ikuslerik ibai ondoko pago zabala baizik. Bere itzalpean agurtu ginen.

Erramunek dion zuhaitzaz ere eraztunaz bezala aurkitzen naiz —ihardetsi zion Martinek— Ez dakit non dagoen ere.

— Erramun — jarraitu zuen epaileak —; zoaz berehala, eta ekarri ieza dazu zuhaitz horren adar bat. Eta zu, Martin, geldi hemen Erramun bihurtu arte.

Joan zen Erramun, eta geroxeago esan zuen epaileak:

— Noraino joan ote da hori? Etorri behar zuen oraingo, nonbaiten gelditu ezik. Ireki ezazu leiho hori, Martin, ea datorren.

— Baina epaile jauna — erantzun zion Martinek — nola nahi duzu hain laster etortzea, zuhaitz hori urruti aurkitzen baita?

Jaiki zen bat-batean epailea, eta kementsu honela hitz egin zion Martini:

— O! gizon gaizto eta maltzurra. Gizaki guzien bihotz-barrenak ezagutzen dituan Jaunaren aurrean gezurrez zin-egin! Zuhaitza non dagon dakienak izango du eraztunaren berri.

Martin, ikaraka eta larriturik, hitz egiteko ere ez zela gelditu zen. Beraz, eraztuna nork zuen jakiteko ez zen beste agerbide beharrik izan; eta epaileak gaitzetsi zuen eraztuna itzuli eta urte bete espetxean igarotzera.

Naiz lurpean naiz itsas hondoan
Zure ogena estali,
Agertuko da egunen baten
Zure gaizkin salatari.



XII

LEHOIA ETA SAGUA

Sagu txiki batek igo zuen lotan zegon lehoiaren bizkar gainera. Esnatu zen lehoia, eta harrapatu zuen sagutxoak atzapar artean. Sagu gaixoak garrasika honela otoitzen zion lehoiari:

— Asketsi (1) jauna! Utzi bizirik, arren, ordainduko dizut-eta!

— Ze ordain eman lezake sagu gaixo honek? — zioen lehoiak bere artean, ezetsirik (2) saguaren laguntza. Baina, errukitu zen, eta utzi zion bakean.

Geroago, ehiztari batek harrapatu zuen lehoi hori sareaz, eta indartsua izan arren gelditu sare-artean buru eta hankak loturik, zirkinik ere egiteko ez zela.

Ikaragarrizko sumintasunez hasi zen orroka. Sagu txikia, orroa entzun eta berehala, atera zen zuloatik eta joan zen lehoiarengana.

— Zer duzu lehoi jauna? — galdetu zion saguak.

— Zer dudan? Arraio-pola! Harrapatzen badiak hankabiko hori! —erantzun zion orro handi bat eginaz.

— Ez estutu, nik askatuko zaitut-eta.

— Bai, zera egingo duk!


— Egon geldi esan, eta heldu zion sagutxoak bere hortz zorrotzekin sareari, eta lokarriak ebakiaz askatu zuen lehoia.

Horrela erakutsi zion saguak lehoiari, handi eta indartsua izan arren ez dela ezetsi behar txiki eta argalak bahitu (3) lezakeen laguntza.

(1) Asketsi = barkatu

(2) Ezetsi = despreziar

(3) Bahitu = Prestar



XIII

BASERRITARRA ETA DEABRUA

Zegama aldeko basetxe baten bizi zen gizon aipatu bat. Baserritar erne eta azkarra benetan! Asko dira bere egitsariak (1). Hona hemen bat.

Lugintzan arratsalde bateko zereginak bete ondoren abiatu zen etxerantz: baina, bat-batean agertu zitzaion soro-erdian ikatz-biziko metatxo bat, eta metatxoaren gainean, patxadan eserita, txerren (deabru) txiki eta beltz bat. Harritu zen zegamarra.

—Zer duk hori! Txerrena txingar gainean! Ikusi behar dugu ba, zer dion. — Eta beldur gabe hurreraturik, honela dio:

— Eup! Bagaude?

— Bai, eta ederki egon ere ogasun gainean eserita — erantzuten dio txerrenak.

— Altxor domutsuren (2) bat izango duk xingar-metatxo hori, noski?

— Domutsua! Baita benetan. Hik inoiz ikusi dituan urre eta zilar guztiak baino ogasun gehiago dik txingar-meta honek.

— Balitekek!... Ba, altxor hori nirea duk, nire soroan aurkitzen delako.

— Hirea izango duk soro honetako lurraren bi urteko etekin erdia ematen badidak.

— Ogasun beharrean aurkitzen al haiz beraz?

— Ez: bazeukaat dirua ugari, baina lur emaitza atsegin zaidak.

Isilalditxo bat izan zuen baserritarrak: eta buruan hatz egin ondoren honela erantzun zion txerrenari:

— Ondo zio: baina, lur etekina banatu behar dugunean haserririk izan ez dezagun, oraintxe

bertan egingo diagu banaketa: Hiretzat lur gainean aurkitzen dena, eta niretzat lurpekoa.

Ontzat hartu zuen txerrenak baserritarraren erabakia, eta joan zen etekin garai arte agurtuaz.

Baserritarrak, poliki oldoztu ondoren, erein zituan zainoriak (3).

Heldu zen izendatutako garaia, eta agertu zitzaion baserritarrari txerren beltza, eta esan zion:

— Tira, non dira nire urte honetako etekinak?

— Horra hor, soro guztia bete-betea —erantzun zion baserritarrak besoak zabalduaz.

Baino txerrenak ez zuen aurkitu lur gainean orri horixka eta zimelak baizik: eta baserritarrak poz eta atseginez atera zituan lurpetik zainori guri-guriak.

— Zori ona izan duk aurten — esan zion txerrenak baina ez duk izango berriz. Datorren urtean lur gainekoak izango dituk hiretzat, eta lurpekoak niretzat.

— Ondo zioz — erantzun zion baserritarrak.

— Baina, txerrena joan zenean, zainori ordeztu garia erein zuen. Eta biltzeko garaia heldu zenean ebaki ondo-ondotik eta eramane zituan etxera galburu eta lasto guztiak.


Agertu zen txerrena, bere lur etekina eramateko ustez, baina ez zuen aurkitu zoroan ezertxo ere sustraiak baizik, eta haserretu eta mindurik bota zuen bere burua haitz tontor batetik behera.

Baserritarrak barre eginaz honela zion:

— A ze iruzurra eraman duen! Hori egin behar zaie azeri maltzur horiei.

Ze lasai eta zoriontsu bereganatu zuen txerrenak utzitako altxorra.

- (1) Egitsari = Azaina
- (2) Domutsu = Valioso
- (3) Zainori = Zanahoria



XIV

TXORIAK TXAPELEAN

Mikel basetxe eder bateko seme-nagusia zen: lelotxoa bera. Egun batean, habi bateko txori gaztetxoak harrapatu zituen. Non eraman ez zekiela, txapelean sartu zituen, eta txapela txori eta guzti, buruan. Izango zuen kili-kilia buru aldian!

Etixerantz zihoala ezezagun batek, gurka bat eginaz, esan zion:

— Adi ezazu adiskide: norakoa da bide hau?
— Baina Mikelek txoriak zeuzkan ginbailean, (sombbreroan) eta agurrari erantzuteko ginbaila kendu behar, eta... txoriak ihes egiteko bidean jarri baino lehen, oldoztu zuen bere artean: — Nik zer zeukaat zer ikusi ezezagun honetaz? — eta jaramonik egin gabe jarraitu zion bideari.

Ezezagunak harriturik, honela zion: — Hau zakarkeria! begiratu ere ez! Basatiak ote dira hemengo gizasemeak? — eta gehiago gabe utzi zion Mikeli.

Geroxeago, endore jaunaren ondotik igaro zen Mikel. Herritar guztiak zuten endore jauna agurtu beharra: baina Mikelek, ginbailean txoriak zituelako edo zakarra zelako, ez zion agurrik egin. Endore jaunak esan zion bere ondoren zetorren otseinari:

— Mutil horrek ginbaila buruari iraatzita al zeukak?

Joan zen otseina berehala Mikelgana, eta esan zion:

— Aizak Mikel: Endore jaunak ginbailpean zer daukan jakitea nahi dik, eta kendu ezak berehala.

— Ez zeukaat ezer, mutil... ileak bakarrik — zion Mikelek; eta ez zuen ginbaila erantzi nahi.

Baina otseinak Ez zeukan berriketako gogorik eta zapla! jo eta bota zion lurrera ginbail hori. Hura zen ikustekoa! Txoriak, barra-barra, pozkidaz hegazka!;

Mikel haserre eta purrustaka: Endore, otsein eta inguruko guztiak irriz eta barrezka!

Handik aurrera «Mikel txori» deitzen zioten Mikeli: eta agur egiten ez zutenentzat esakunea sortu zen:

«Horrek txoriak ditu ginbailpean noski».

Iraatzita = erantsita (euskaraz.net-en oharra)



XV

SAGU ERNEAK

Sagu gaixoentzat katua izan da beti etsairik gaiztoena. Gogaitu ziren katuaren eguneroko jarraitzea ikusiaz, eta bildu ziren guztiak beti itxita aurkitzen zen gela batean batzar bat egiteko. Berrogei eta zortzi aldiz katuaren atzapar-artetik ihes egindako sagu maltzur bat hautetsi zuten batzar-buru: «Gaztaki» zen bere izena. Nahi zuten guztiak txandaka hitz egin ondore, jaiki zen Gaztaki,

eta honela hitz egin zuen: — Nire anaia eta lagunak: Hitz gehiegi egite duzue. Guri dagokiguna da alferrikako berriketari utzi eta erabaki zuzenak hartu.

— (Hori duk, Gaztaki! — zioten guztiak) — Bai, zuek baino hobeto ezagutzen dizkiat katuaren gogokizun gaiztoak. Gaur goizean berrogei eta zortzigarren aldiz aurkitu nauk gure etsaiaren atzapar artean; eta ez nitek nahi berriz arrisku horretan nire burua ikusterik. Horretarako, astiro oldoztu ondoren, asmatu diat bide zuzen eta egoki-egoki bat.

— (Guztiak txaloka: Gora Gaztaki!) — Bide egoki hori duk, katuari lepotik zintzilika txilin bat jartzea. Horrela sumatuko diagu urreratu baino lehen, eta izango diagu zuloan garaiz sartzeko astia. — Hori, hori! Bejondeiala! — zioten guziek.

Ekarri zituzten txilin zoli bat eta lokarri polit bat. Guztiak agertzen zuten beren alaitasun eta pozkida. Bat bakarrik, zahartxo bera, aurkitzen zen oldozkor. Jaiki zen oldozketa ondoren, eta galdetu zuen benaz.

— Nor izango da katuari txilina jarriko diona?

Guziak isildu ziren bat-batean.

Gaztaki batzarburuak ere galdetu zuen:

— Ez al du inork azarkuntzarik? (1)

Ez zuen inork erantzuten.

— Katua lo aurkitzen den bitartean ere ez? —
galdetu zuen berriz.

Baina berdin; guztiak, zahar eta gazteak, isil-isilik
aurkitzen ziren.

Haserretu zen Gaztaki, eta jarraitu zuen esanez:

— Ba, alperrik bildu gara. Zoazte hemendik,
katuaren erpekada goxoak ezagutzera.

Eta banaka-banaka, apal-apal eta atsekabez, joan
ziren sagu gaixoak bakoitza bere zulora; eta hor
dabiltza bazterrik bazter hanka jokoka, katuaren
ingurutik itzurka.

(1) Azarkuntza = ausardia (euskaraz.net-en oharra)

XVI

TXOMIN GEZURTI

Igande arratsalde batean atera zen Txomin bere aitarekin ibilketatxo bat egitera. Guztizko gezurtia zen Txomin hori. Bidean zihoazela, esan zion aitari:

— Aita: Lege zahar zeian (1) ikusi nuen atzo izugarrizko txakur bat: bazen gutxienez gure zaldi zuria bezain handia.

— Hago isilik — erantzun zion aitak — horrela gezurrik esan gabe.

— Baietz: zuk ez duzu sinistuko, baina egi-egia da: ondo begiratu nion.

— Harritzekoa duk.

— Idi batek baina indar gehiago omen du.

— Kai berriko zubia igarotzen dugunean jakingo diat egia den edo ez.

— Zer ba?

— Hara: Gezur handitxoa esaten dutenak zubi hori igarotzean harri bat jo eta eroriaz edo besoa edo izterra hautsita gelditzen dituk.

— Benetan! Ene! — Ikaratu zen Txomin, eta honela zion aitari:

— Itxoin puska bat, aita. Nola esan dizut lehen?... Orain gogoratzen naiz ondo. Ez zen izango gure zaldia bezain handia: baina, bai astoa baina zerbait handitxoagoa.

— Balitekek. Laster gaituk zubian —erantzun zion aitak.

Txomin, zubiari begiratuaz, gero eta gehiago estutzen zen; eta esan zion aitari:

— Aita: atzo ikusi nuen txakur hori izango zen ba txahal txiki baten esterikoa (1)

— Bai, gutxienez. Hemen duk zubia: gaizki behar duk oraintxe, Txomin — esanda bazihoan aurrera.

Baina, Txominek, estutasun larriak harturik, heldu zion jakatik, esanaz:

— Aita, aita, gelditu arren! Gehiegizka esan dut. Atzoko txakur hori, beste txakur batzuek bezalakoa zen.

(1) Zeia = mercado, campo (euskaraz.net-en oharra)

(2) Esteri = Tamaño



XVII

BASERRITARRA ETA TXIMINOAK

Joan zen egun baten baserritar bat aberats baten jauregira, otarra bat bete madari eramatera.

Jauregi-atarian aurkitzen ziren tximino bi, apain eta poliki jantziak, beren ginbail (sombbrero) eta guzti: neska-mutiltxo bi ziruditen. Sumatu zuten berehala madari urrin goxo-goxoa, eta heldu zioten alde bitatik otarrari *sakela* madariz betetzeko pozez. Baserritarra txapela itzalez kenduta egon zen

tximinoak madariz, asebete egin arte. Ondoren, eramane zion otarra nagusi jaunari. Honek, otarra erdi hutsik ikusirik, galdetu zion baserritarrari:

— Zergatik ez duzu ekarri gehiago?

— Jauna — erantzun zion baserritarrak — bete-betea ekarri dut; baina zure seme-alabatxoak jan dituzte gehienak.

— Nire seme-alabak?

— Bai jauna: eta gogoz jan ere! Ni pozez nengoen beren jan-beharra ikusiaz.

— Baina nik ez ba dut seme-alaba txikirik!

— Ba... atarian gelditu dira.

— A!... orain gogoratzen naiz: Tximinoak!

XVIII

ARTZAIN BATEN BETAURREKOAK

Igandero Elizara joaten zen artzain batek ohartu zuen herriko irakaslea betaurrekoak inoiz kendu gabe ibiltzen zela eta, benaz oldoztu ondoren, honela zion:

— Ez dut ezbairik: Irakasle hori betaurrekoak dituelako izango da herri honetako irakurlerik azkarrena.

Eta besterik gabe, erabaki zuen berak ere erostea.

Joan zen bada egun batean Donostiara. Bakar-bakarrik kalerik kale, jo horra eta jo hona, luzaro ibili ondoren, jo zuan noizbait betaurrekoak saltzen ziren denda batean.

Gelditu zen ate ondoan, eta deitu zuen indartsu:

— Eup! hemen saltzen al dira betaurrekoak?

— Bai gizona: zatoz aurrera — erantzun zioten — Hona hemen ugari eta merke.

— Merke nahi garesti: behin honaino ezkerro ez naiz itzuliko erosi gabe.

— Hona hemen izparringia, eta ikusi ezazu zeinekin irakurtzen duzun hobeto.

Jarri zuan bat, eta izparringiari goitik behera begiratu ondoren, honela zioen:

— Ez dut batere irakurtzen.

— Ikusbide laburra al duzu?

— Laburra! Ez jauna, ez. Nik Aizkorriko muturretik zenbatzen ditut Ernion aurkitzen diren ardiak.

— Tira ba honekin.

Jarri zuan beste bat, honen ondoren beste bat; eta horrela bana-banaka ikustatu zituen mota guztietako betaurrekoak, leiarrak ondo garbituaz; baina alperrik, ezin zuen irakurri.

Gogait egin zuen dendariak, eta galdetu zion artzainari:

— Zuk badakizu gero irakurtzen?

— Alajaina! Irakurtzen baneki ez nuke betaurreko beharrik!

XIX

TXAKURRA ALA TXERRIA?

Altzako Kilimon kirten Donostiara txerri eder bat eramane beharrean aurkitzen zen. Baina, *Santa Katalina* zubia igarotzeko zerga gogortxo ordaindu behar; eta horrek min handia ematen zion. Ez zuen lorik egin gau hartan: Zerga ordaindu gabe Donostiara nola sartuko ote zuen oldozten igaro zuen gau guztia. Asmatu zuen azkenerako, eta ederki asmatu ere.

Lehenbizi hil zuen txerria. Gero, heldu zion etxeko zakurrari, eta zorro batean sartuaz, badoa gure Kilimon zakurra bizkarrean duela.

Iritsi zen zerga etxe aurrera, eta zergari batek galdetu zion:

— Zere daramazu zorro horretan?

— Etxeko zakurra.

— Zakurra e? eta harategira beraz? Nik emango dizut zuri!

— Zakurra dela, gizona! Jauregi bateko baratze zaintzeko daramat.

— Ez diguzu sartuko ziri hori. Tira, tira, zabaldu zorroa berehala.

Zabaldu zuen Kilimonek, eta zalapartaka atera zen zakurra eta lasterka ihes egin zuen bere etxerantz.

Haserre handia irudikatuaz, honela zioen Kilimonek zergariari:

— Zakurra ala txerria izan da? Sinistuko al duzu orain? Zuek bezalako gezurtiak garela uste duzue? Arraio-pola!... Zoaz orain zakurra berriz harrapatu eta ekartzera!

Handiak esan ondoren, joan zen Kilimon bere etxera. Iritsi eta berehala zakurrari ondo esan eta arto zati bat eman ondoren, sartu zuen zorroan txerria eta bizkar gainean harturik abiatu zen Donostia alderantz.

Zerga etxera iritsi zenean aurpegi ilun eta begirakune zemaikor bat zuzenduaz, honela dio:

— Nahi al duzue berriz zakurra ikusi? Ez litzaizueke gaizki etorriko bere haginkada bat!

Eta zergariak barrez utzita sartu zen Kilimon Donostiara lasai eta pozez txerria bizkarrean zuela, zergariari iruzur-eginaz.